

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### 2021eko jarduera ekonomikoen gaineko zerga: borondatezko epean ordaintzeko aldia

Nik, Erika Letamendi Hurtadok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkatea.

Jakinarazten dut: 2021eko azaroaren 1etik aurrera ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2021eko azaroaren 1etik abenduaren 8ra.

B) Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 9tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Banketxeetan helbideratuta dauden ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, oraindik helbideratze kontu berbera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko lekuak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– Internetez, Donemiliagako Udalaren [www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento](http://www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento) web orrian (Nire ordainketa).

III. Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Donemiliagako udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2021eko urriaren 6a

*Alkatea*

*ERIKA LETAMENDI HURTADO*